Urretxuko udala

**UDALAREN OSOKO BILKURA**

**2020ko URTARRILAREN 28an EGINDAKO APARTEKO BATZARRALDIA**

**Elkartutakoak**

**Alkatea:**
Jon Luqui Albisua, jauna (E.A.J./P.N.V.)

**Zinegotziak:**
Itziar Agirre Berriotxoa , andrea (E.A.J/ P.N.V)
Jon Albisua Garmendia, jauna (E.A.J/ P.N.V)
Maialen Fidalgo Mendizabal, andrea (E.A.J/ P.N.V)
Victor M. Pérez Eguren, jauna (E.A.J./ P.N.V.)
Ion Pol Agirre Berriotxoa, jauna (E.A.J./ P.N.V.)
Iñaki Etxaniz Arregi, jauna (E H Bildu)
Nekane Oruesagasti Aramendi, andrea (E H Bildu)
Mikel Elgarresta Mintegi, jauna (E H Bildu.)
Igone Nestar Del Río, andrea (EH Bildu)
Natividad Nieves Medina, andrea (P.S.E.-E.E)
Jokin Garcia Benítez, jauna ((P.S.E.-E.E)

**Ez Bertaraua:**
Igor Zubillaga Aguado, jauna (E.A.J/ P.N.V)

**Idazkaria**
María Jose Begiristain Zabalo andrea

Arratsaldeko zazpiak direnean, aldez aurretik deitutako aparteko batzarraldia egiteko, Udalbatza bildu da udaletxeko batzar areto nagusian; goian agertzen diren udal- bazkideak elkartu dira.

Siendo las diecinueve horas se reúne en la Sala Capitular del Ayuntamiento el Pleno de la Corporación al objeto de celebrar sesión extraordinaria para la que había sido convocada y a la que asistieron los Señores y Señoras Corporativos/as que arriba se indican.

Ekitaldia hasi aurretik, alkateak jakinarazi du

Previo a la apertura del acto, el Sr. Alcalde

akta

Urretxuko udala

ostegunerako aurrez ikusitako ezohiko deialdia aurreratu dela, horretarako egindako eskaerari erantzunez.

Lehendakariak ekitaldiari hasiera eman dio, eta bere aginduz, eguneko gai-zerrendan sartutako gaiei eztabaidatzeari ekin diote

informa que se ha adelantado la convocatoria extraordinaria pre4vista para el jueves atendiendo a la solicitud realizada al efecto.

Seguidamente se procede a abrir el acto por la Presidencia y de su orden se pasó a tratar de los asuntos relacionados en el Orden del Día

| | |
|---|---|
| 1.-. Pertsonak zarata eta bibrazio isurien aurka babesteari buruzko udal ordenantza: onarpena. | 1.- Ordenanza municipal sobre protección de las personas contra las emisiones de ruidos y vibraciones: aprobación. |
| 2.- 2020-2023 Diru-laguntzen Plan Estrategikoa: onarpena. | 2.- Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023: aprobación. |
| 3.- 2020ko urtarrilaren 10eko Alkatetzaren Ebazpena: berrespena. | 3.- Resolución de Alcaldía de 10 de enero de 2020: ratificación. |
| 4.- 30U mozioak. | 4.- Mociones 30U. |

**1.- Pertsonak zarata eta bibrazio isurien aurka babesteari buruzko udal ordenantza: onarpena.**

Alkate jaunak azaldu du 2006. urtetik zaratei buruzko ordenantza bat badagoela, baina indarrean dagoen arautegi berriak (zaratari buruzko legea) gure ordenantza legearen arabera egokitzea eskatzen duela. Ordenantza berri honen espiritua aurrekoaren berbera dela esan du, hau da, auzokoen eta zarata sortzen duten merkataritza-jardueren arteko elkarbizitza bermatzea.

Lurralde Batzordeak proposatutako

**1.- Ordenanza municipal sobre protección de las personas contra las emisiones de ruidos y vibraciones: aprobación.**

El Sr. Alcalde expone que ya se dispone de una ordenanza “de ruidos” desde el año 2006, pero que la nueva normativa en vigor (ley del ruido) exige que adecuemos nuestra ordenanza a la misma. Sigue diciendo que el espíritu de este mueva ordenanza es el mismo que el de la anterior, y no es otro que garantizar la convivencia entre vecinos y actividades mercantiles que generan ruido.

Expone que la ordenanza, propuesta por la Comisión de Territorio, contiene capítulos

ordenantzak honako kapitulu hauek dituela azaldu du: ingurumen-zarataren kudeaketa, zarata-mapari eta transmisioaren muga-balioei buruzko xedapenak dituena; eraikuntza arautzeko kapitulua; bide publikoko jarduerak eta instalazioak arautzen dituen beste kapitulu bat; ibilgailu motordunen zarataren eta arau-hausteen eta zehapenen araubidea.

Era berean, jakinarazi du, Administrazio Publikoen Administrazio Prozeduraren Legean xedatutakoari jarraiki, alkatetzaren 2019ko abenduaren 23ko ebazpenaren bidez erabaki zela ordenantza egiteko memoria eta haren zirriborroa 15 egunez jendaurrean jartzea udalaren webgunean, eta kontsulta horren epean ez dela ekarpenik, alegaziorik edo iradokizunik jaso.

Amaitzeko, adierazi du batzordeetan udal-taldeek hainbat iradokizun aurkeztu dituztela, gehienak arau-hausteen eta zehapenen arloan, eta horietako batzuk kontuan hartu direla.

Zinegotzien txandekin hasita, Nieves andreak (PSE-EE) azaldu du ordenantza hau elkarbizitza hobetzeko dokumentu bat dela, eta udal-talde guztiek beren ekarpenak egin dituztela. Hala, bada, aldeko botoa emango dutela adierazi du.

Oruesagasti andreak (EH Bildu) esan du bere taldeak ere zenbait ekarpen egin zaizkiola ordenantza horri; zehazki, oso

tales como gestión del ruido ambiental que contiene disposiciones relativas a los mapas de ruido, valores límite de transmisión; capítulo de regulación para la edificación; otro que regula las actividades e instalaciones en la vía pública; la regulación del ruido de los vehículos a motor, y el régimen de infracciones y sanciones.

Asimismo informa que, de acuerdo en lo dispuesto en la Ley de Procedimiento Administrativo de las Administraciones Públicas por Resolución de Alcaldía de 23 de diciembre de 2019 se acordó someter a consulta pública en la web municipal durante 15 días la memoria de elaboración de la ordenanza y un borrador de la misma, y en el plazo de dicha consulta no se han recibido aportaciones, alegaciones ni sugerencias.

Para finalizar expone que en comisión los grupos municipales sí han presentado distintas sugerencias, la mayoría en el campo de las infracciones y sanciones, habiéndose tenido en cuenta algunas de ellas.

Iniciado el turno de intervenciones, la Sra. Nieves, PSE-EE, expone que esta ordenanza es un documento que va a mejorar la convivencia, a la cual todos los grupos municipales han hecho aportaciones, y que van a votar a favor de la misma.

La Sra. Oruesagasti, EH Bildu, dice que su grupo también presentó algunas aportaciones a esta ordenanza, en concreto

larritzat kalifikatutako arau-hauste batzuen kalifikazioa aldatzeko eta larritzat jotzeko eskatu zuten, eta zehapenak mailakatzeko sistema sinplifikatzeko ere eskatu zuten. Bi ekarpenak aintzat hartu dira. Horregatik, eta ordenantza hau elkarbizitza hobetzeko egokia izango delakoan, aldeko botoa emango dutela adierazi du.

Zinegotziek hitz egiteko txanda amaitu ondoren, bozketa egin da eta, aho batez, honako erabaki hau hartu da:

**Lehena.-** Pertsonak zaraten eta dardaren emisioen kontra babesteari buruzko udal-ordenantza hasierako izaeraz onartzea.

**Bigarrena.-** Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 49 b) artikulua betez, erabaki hau jendaurrean hogeita hamar egunez jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuz, erreklamazioak eta iradokizunak aurkez daitezen.

Epe hori amaituta inolako erreklamaziorik egin ez bada, behin betiko onartuko da.

**2.- 2020-2023 Diru-laguntzen Plan Estrategikoa: onarpena.**

Alkate jaunak azaldu du diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrak nahitaez eskatzen duen dokumentua dela, eta udalak emango dituen diru-laguntzak arautzeko aurreragoko oinarrien funtsa den barne-dokumentua dela.

plantearon que algunas infracciones calificadas como muy graves fueran graves, y también que se simplificara el sistema de graduación de las sanciones. Ambas aportaciones han sido tenidas en cuenta. Por ello y por entender que este ordenanza va a servir para mejorar la convivencia, van a votar a favor de la misma.

Finalizadas las intervenciones, y sometido el asunto a votación, por unanimidad, se acuerda:

**Primero.-** Aprobar inicialmente Ordenanza municipal sobre protección de las personas contra las emisiones de ruidos y vibraciones.

**Segundo.-** En cumplimiento del art. 49 b) de la Ley Reguladora de Bases de Régimen Local, someter este acuerdo a información pública mediante la publicación durante treinta días de anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para la presentación de reclamaciones y sugerencias.
Transcurrido este plazo sin producirse reclamaciones, la aprobación devendrá definitiva.

**2.- Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023: aprobación.**

El Sr. Alcalde expone que se trata de un documento preceptivo exigido por la Ley general de Subvenciones, documento interno que sustenta las posteriores bases reguladoras de las subvenciones que se otorgan por el ayuntamiento.

Ondoren, esan du aurreko Plan Estrategikoa 2017. urtean onartu zela, eta plan hori 2019. urtera arte egon zela indarrean.

Sigue diciendo que el anterior Plan Estratégico fue aprobado en e año 2017 y su vigencia era hasta el año 2019

Dokumentuaren edukiari dagokionez, honako hauek dituela azaldu du: atarikoa, xedapen orokorrak jasotzen dituzten zazpi kapitulu, planaren helburuak, onuradunak, gauzatzeko epea, diru-laguntzen kostuak eta finantzazioa, planaren edukia eta planaren kontrola eta ebaluazioa eta jarraipena. Horrez gain, planaren diru-laguntzen ildoekin bat datozen zortzi eranskin ditu: 1) familia eta gizarte-ongizatea; 2) lankidetza, elkartasuna eta giza garapena; 3) elkartegintza sustatzea, eta kultura eta kirola sustatzea eta zabaltzea; 4) euskara sustatzea; 5) haur eta gazteei laguntzea; 6) tokiko merkataritza sustatzea; 7) ingurumena eta landa-garapena; eta 8) ekintzailetza sustatzea eta enpresa-lehiakortasuna hobetzea.

En relación al contenido del documento expone que contiene un preámbulo, siete capítulos en los que se recogen las disposiciones generales, los objetivos del plan, las personas beneficiarias, el plazo de ejecución, costes y financiación de las subvenciones, el contenido del plan, y el control y evaluación-seguimiento del mismo. Además de esto contiene ocho anexos que se corresponden con las líneas de subvención del Plan y que son 1) familia y bienestar social; 2) cooperación, solidaridad y desarrollo humano; 3) fomento del asociacionismo, y promoción y difusión cultural y deportiva; 4) fomento del euskara; 5) apoyo a la infancia y juventud; 6)fomento del comercio local; 7) medio ambiente y desarrollo rural; y 8) fomento del emprendimiento y mejora de la competitividad empresarial.

Aurreko Plan Estrategikoak jasotzen zituen diru-laguntzen ildo berberak dira, Aparicio auzoko jabekideen erkidegoei zuzendutako eraikinen hiri-berroneratzea eta -berrikuntza sustatzea izan ezik, helburua jada bete denez, kendu egin baita.

Las mismas líneas de subvención que recogía el anterior Plan Estratégico, con la salvedad del fomento de la regeneración y la renovación urbana de edificios, dirigida a las comunidades de propietarios del barrio de Aparicio, que se ha suprimido por haberse cumplido ya su objetivo.

Ildo bakoitzaren barnean aurreko planean zeuden diru-laguntza guztiei bere horretan eutsi zaiela gaineratu du, euskarazko ikuskizunak antolatzeko ostalaritza-establezimenduei zuzendutakoaren kasuan

Añade que dentro cada línea también se mantienen todas las subvenciones existentes en el anterior Plan, salvo la destinada a los establecimientos hosteleros para la organización de espectáculos en

izan ezik.

Eta, horrez gain, beste berri batzuk ere jaso dituzte: Aterpe jubilatuen elkartea; gazteentzako laguntzak etxebizitzaren alokairua ordaintzeko; herriko merkataritzako kontsumoa sustatzea, seme-alabak derrigorrezko eskola-adinean dituzten familiei zuzenduta; alde zaharrean hutsik dauden lokalak alokatzea.

Antolamendu Batzordearen aldeko irizpena kontuan hartuta, eta gaia bozkatu ondoren, honako hau erabaki da, aho batez:

**Lehena.-** 2020-2022rako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzea.

**Bigarrena.-** APAPEri buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan xedatutakoa betez, plana onartzeko erabakia eta planaren testu osoa argitaratzea, denek horren berri izan dezaten, eta adieraztea erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daitekeela dagokion Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian bi hilabeteko epean, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

**3.- 2020ko urtarrilaren 10eko Alkatetzaren Ebazpena: berrespena.**

2020ko urtarrilaren 10ean alkateak emandako ebazpenaren berri eman da; ondoren transkribatu da testua:

2020ko urtarrilaren 20an, udal honetako

euskara.

Y además, se han recogido otras nuevas: asociación jubilado Aterpe; ayudas a la juventud para el pago del alquiler de vivienda; fomento del consumo en el comercio local dirigido a familias con hijos e hijas en edad escolar obligatoria; alquiler de locales vacíos en el casco histórico.

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Organización, y sometido el asunto a votación, por unanimidad, se acuerda:

**Primero.-**Aprobar el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2022.

**Segundo.-** En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 45 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, LPACAP, proceder a publicar el acuerdo de aprobación y el texto íntegro del Plan para general conocimiento, haciendo constar que contra este acuerdo cabe recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo de Donostia que corresponda en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente al de la publicación del anuncio.

**3.- Resolución de Alcaldía de 10 de enero de 2020: ratificación.**

Se da cuenta de la Resolución de Alcaldía de 10 de enero de 2020 cuyo texto se transcribe a continuación:

Con fecha 20/01/2020 el puesto de

Urretxuko udala

kontu-hartzaile lanpostua hutsik geratu zen, Ainhoa Olano Garmendia andreak lanpostuari uko egin diolako; 2017ko urtarrilaren 9tik bitarteko langilea da Ainhoa, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2016ko abenduaren 28an egindako izendapenaren arabera.

Interventor/a de este ayuntamiento se queda vacante por la renuncia de Dña. Ainhoa Olano Garmendia, que viene ocupando el mismo con carácter de interinidad desde el pasado 9 de enero de 2017 de acuerdo al nombramiento efectuado por la Diputación Foral de Gipuzkoa con fecha 28/12/2016.

GFAri eta HAEEri kontu-hartzaileen lan-poltsa eskatu zaie, lanpostua ahalik eta azkarren betetzeko.

Se ha solicitado a DFG e IVAP la bolsa de trabajo de interventores para la cobertura del puesto de trabajo a la mayor brevedad posible.

HAEEk Jon Iturrioz Nazabal jauna proposatu du; hark, bere aldetik, lanpostu hutsa betetzeko interesa duela adierazi du, eta kontu-hartzaile lanpostua eskuratzeko baldintzak betetzen ditu.

Desde IVAP se propone a D. Jon Iturrioz Nazabal, quien manifiesta interés en la cobertura de la vacante, y quien cumple las condiciones para el acceso al puesto de trabajo de interventor.

Kasuari aplikatu beharreko legerian xedatutakoa kontuan hartuta, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 k) artikuluak esleitzen dizkidan eskumenen bidez, honako hau

Considerando lo dispuesto en la legislación aplicable al caso y en virtud de las competencias 1que me confiere el art. 21.1 k) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, por la presente,

**EBATZI DUT:**

**RESUELVO:**

**Lehena.-** Gipuzkoako Foru Aldundiari proposatzea Jon Iturrioz Nazabal (NAN zk: 44126742T) jauna izenda dezala behin-behineko funtzionario gisa, udal honetako kontu-hartzaile postua bete dezan 2020ko otsailaren 1etik aurrera.

**Primero**.- Proponer a la Diputación Foral de Gipuzkoa el nombramiento de D. Jon Iturrioz Nazabal, DNI: 44126742T a fin de que ocupe como funcionario interino la plaza de interventor de este ayuntamiento, con fecha de efectos 01/02/2020.

**Bigarrena.-** Ebazpen honen berri ematea udalbatzari, egiten den lehenengo bileran berrets dezan.

**Segundo.-** Dar cuenta de esta Resolución al Pleno, para su ratificación en la primera sesión que este celebre

Bozkatu ondoren, aho batez berretsi da.

Sometida la misma a votación, es ratificada por unanimidad.

**4.- U30 mozioak.**

Alkate jaunak azaldu du bi mozio aurkeztu direla, bata EH Bilduk aurkeztutakoa, eta bestea EAJ-PNVk aurkeztutakoa. Aurkezpen-ordenaren arabera irakurri eta bozkatuko direla adierazi du, eta, beraz, lehenengo **EH Bilduk aurkeztutako mozioa** aztertuko dela.

Etxaniz jaunak, EH Bilduren bozeramaileak, bere talde politikoak aurkeztutako mozioa irakurri du. Mozio horren testua hitzez hitz transkribatu da:

**4.- Mociones 30U.**

El Sr. Alcalde expone que se han presentado dos mociones, una presentada por EH Bildu, y la otra por EAJ-PNV. Indica que se procederá a su lectura y votación en función del orden de presentación, por lo que en primer lugar se tratará la **moción presentada por EH Bildu.**

El Sr. Etxaniz, portavoz de EH Bildu, procede a dar lectura a la moción presentada por su grupo político, cuyo texto se transcribe literalmente a continuación:

*LAN-PENTSIO-BIZITZA DUINA*
*URTARRILAK 30 GREBA OROKORRA*

*Duela sei urte, sindikatu eta eragile sozial ugarik herritarren eskubide sozialak biltzen dituen Karta osatu zuten, prozesu parte-hartzaile baten bidez. Orduz geroztik eskubide horien aldeko ekimenak antolatu ditu,.*
*Bestetik, Hego Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduak bi urte daramatza pentsio duinen alde astero mobilizatzen; bide horretan, pentsioen eremuaz gaindi, modu zabalagoan "planto" egiteko beharra plazaratu dute, euren aldarrietatik harago joateko asmoz.*
*Orain, aipatu planteamenduaren haritik, mugimendu bien arteko konfluentzia eman da, pentsiodunen eta euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren artekoa, alegia, lan baldintza, pentsio eta bizitza duinaren aldeko borrokari aurre egiteko.*
*Konbentzimendu hirukoitz batek batu ditu: batetik, pentsioena denon afera da, oraingo pentsiodunena nahiz etorkizunekoena; bestetik, lan baldintza duinen aldeko borroka ezinbestekoa da; azkenik, eskubide sozialak bermatu behar dira.*
*Finean, bestelako eredu sozial-produktiboa eraiki behar dugu, bizitza erdigunean jartzeko, zaintzari eta planetaren jasangarritasunari lehentasuna emanez.*
*Ezarriak dituen ardatz nagusiekin bat egiten dugu, alegia: aberastasunaren birbanaketa, sektore publikoaren lidergoa, eskubideen unibertsaltasuna, euskararen normalizazioa, lurraldeen arteko oreka, jendartearen beharren arabera antolakuntza (lehen sektorea, azpiegiturak, merkantzien eta garraio sektorea…).*
*Horregatik, Euskal Herriko Karta Sozialak pentsiodunen mugimenduarekin batera adostu duen Aldarrikapen Taularekin bat eginez, ondorengo ebazpen proposamena aurkezten dugu.*
*Horiek Horrela Urretxuko Udalak*
*1.- Lan-pentsio-eta bizitza-duinaren aldeko grebari bere atxikimendua adierazi nahi die.*
*2.- Lan-pentsio-eta bizitza-duinaren aldeko greba egin ahal izateko erraztasunak eskainiko dizkie Urretxuko Udaleko langileei.*
*3.- Euskal Herriko karta Sozialak pentsiodunen mugimenduarekin batera adostu duen Aldarrikapen Taularekin bat egiten du, eta horregatik:*

*3.1. Madrilgo Gobernuari eskatzen dio*

*. 2011 eta 2013ko erreformetan onetsitako pentsio-murrizketak indargabetzea.*

*. Zapateroren eta Raxoiren lan erreformak bertan behera uztea.*

*. Presazko izaeraz Gizarte Segurantzaren eta Enplegurako Politika Pasiboen gaineko eskumenak transferitzea.*

*3.2. Gasteizko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari eskatzen die*

*. 1.080 euroko gutxieneko pentsioa ezartzeko neurriak presazko izaerak ezartzea.*

*. Hileko 1.200 euroko gutxieneko soldata ezartzeko neurriak abiatzea.*

*. Hitzarmen kolektiboaren ultraktibitate mugagabea eta herrialdeko hitzarmenean aplikazioa estatu mailako hitzarmenen gainetik lehenetsiak izateko sustapen lanak egitea.*

*. Lanera bizirik itzultzeko eskubide bermatzea.*

*. Lan Ikuskaritzako plantillak handitzea, Europar Batasunekoekin parekatu arte, eta lan-istripuen eta laneko gaixotasunen aurkako ekintza planak abiatzea.*

*. Lan-harremanetarako eta babes-sozialerako esparru propioaren aldeko neurriak abiatzea.*

*3.3 Erkidegoko eta Lurraldeko Gobernuei eskatzen die*

*. Gizon eta emakumeen arteko soldata-arrakala eta pentsio-arrakala amaitzeko neurri zehatzak aktibatzea.*

*. Enplegu egonkorra sustatzea eta kontratazioan ematen den iruzurra zigortzea.*

*. Soldata gutxitu gabe lanaldia 35 ordura jaisteko neurriak abiatzea.*

*. Bereziki emakumeei ezartzen zaizkien lanaldi partzial inposatuak ezabatzea.*

*. Zerbitzu publikoak garatzea, ezarritako murrizketak atzera botatzearekin batera.*

*. Kontratazioan sexuaren, jatorriaren, ideologiaren, sexu identitatearen, aniztasun funtzionalaren edo ekonomia jardueraren araberako diskriminaziorik egingo ez dela bermatzea.*

*. Klausula sozialak ezartzea administrazioko kontratazioi guztietan.*

*4.- Urretxuko Udalak adostutako mozioa Eusko Jaurlaritzari, Nafarroako Gobernuari, Lurraldeko Gobernuari eta Euskal Herriko Karta Sozialari helaraziko die.*

Zinegotzien txandari hasiera emanda, Nieves andreak (PSE-EE) azaldu du, gizarte-mobilizaziorako eskubidea errespetatuz beti, euskal sozialistek ez dutela babestuko EH Bilduk urtarrilaren 30erako egindako greba-proposamena, uste baitute mobilizazio hori ez dela gauzatzen pentsioak zehazteko eskumen-eremuan, eta ez dutela pentsiodunen kolektibo guztiek parte hartzen.

Gaineratu du sozialistek, beste behin ere, pentsioen sistema publikoa mantentzeko eta indartzeko konpromisoa agertu dutela. Kexu agertu dira, Toledoko Itunaren azken

Iniciado el turno de intervenciones, la Sra. Nieves expone que desde el respeto al ejercicio del derecho a la movilización social, los socialistas vascos no van a apoyar la propuesta que EH Bildu plantea respecto a la huelga del 30 de enero, al considerar que dicha movilización no se ejerce en el ámbito competencial al que corresponde la determinación de las pensiones ni es una movilización a la que se adscriben todos los colectivos de pensionistas.

Añade que los socialistas manifiestan, una vez más, su compromiso por el mantenimiento y fortalecimiento del sistema público de pensiones. Lamentan que de la

Urretxuko udala

bileratik ezin izan delako atera pentsioak erreformatzeko proposamen adostu bat.

Gogorarazi du PSOEk eta Unidas Podemosek sinatutako "Koalizio Progresista" gobernu-akordioan berariazko konpromiso bat jasotzen dela eskubide sozialen arloan, pentsioei, inklusioari eta Gizarte Segurantzari dagokienez. Konpromiso horretan, pentsio duinak bermatzea planteatzen da, pentsioen sistema publikoaren askitasunaren eta balio-handitzearen bidez, eta, horretarako, Toledoko Itun berri bat planteatuko zaie indar politiko eta gizarte-eragile guztiei, pentsioen sistema publikoaren iraunkortasuna eta askitasuna bermatzeko. Pentsioak KPI errealaren arabera eguneratuko dira, legez eta modu iraunkorrean, gutxieneko pentsioen eta kotizazio gabeko pentsioen erosteko ahalmena handituz. Pentsioetan genero-arrakala murriztea eta alarguntza-pentsioak berrikustea bultzatuko da. Hutsuneak betetzeko eta oinarri arautzailea zehazteko sistema berrikusiko da, karrera profesional irregularrak dituzten pertsonei kalterik ez eragiteko, eta amatasun-osagarria ere berrikusiko da, ekitatiboagoa izan dadin eta genero-rolak betikotzea saihesteko.

Biziarteko Gutxieneko Diru Sarrera garatuko da Gizarte Segurantzaren prestazio gisa.
Bestalde, Eusko Jaurlaritzari egiten dizkioten eskakizunei dagokienez, esan du horiek guztiak Eusko Legebiltzarrean jorratutako ekimenak izan direla, eta bere eskumen-esparrukoak ez direnak izan ezik,

última reunión del Pacto de Toledo no pudiera salir una propuesta de reforma de las pensiones consensuada.
Recuerda que en el Acuerdo de Gobierno “Coalición Progresista” firmado entre el PSOE y Unidas Podemos hay un compromiso explícito en el ámbito de los derechos sociales respecto a las pensiones, inclusión y Seguridad Social. En ese compromiso se plantea garantizar pensiones dignas a través de la suficiencia y revalorización del sistema público de pensiones y para ello se planteará a todas las fuerzas políticas y a los agentes sociales un nuevo Pacto de Toledo que garantice la sostenibilidad y suficiencia del sistema público de pensiones. Se actualizarán las pensiones conforme al IPC real mediante ley, de forma permanente, aumentando el poder adquisitivo de las pensiones mínimas y las no contributivas. Se impulsará la reducción de la brecha de género en las pensiones y la revisión de las pensiones de viudedad. Se revisará el sistema de cobertura de lagunas y de determinación de la base reguladora para evitar perjuicios a las personas con carreras profesionales irregulares y el complemento por maternidad para hacerlo más equitativo y evitar la perpetuación de los roles de género.
Se desarrollará el Ingreso Mínimo Vital como prestación de Seguridad Social.
Por otra parte, indica que en lo que respecta a las exigencias que realizan al Gobierno Vasco, todas ellas han sido iniciativas tratadas en el Parlamento Vasco y salvo aquellas que no son de su ámbito competencial se han acordado propuestas

euskal herritarren bizi-baldintzak hobetzeko proposamenak adostu direla, gizarte- eta lurralde-kohesioa bultzatuz Euskadin. 2020rako Euskadiko aurrekontuek Eusko Jaurlaritzaren planak amaitzea ekarriko dute, euskal herritarren bizi-baldintzak duinak eta bidezkoak izan daitezen; horretarako, DSBE jasotzeko eskubidea hobetuko da, bai zenbatekoari dagokionez, bai prestazioan sartutako kolektiboen gehikuntzari dagokionez.

Eta, azkenik, esan du azpimarratu nahi duela grebarako eskubidea errespetatzen dutela, eta, beraz, edozein herritarrek eskubide hori baliatu ahal izatea errespetatzen dutela, eskubide horretan egingo diren aldarrikapenak partekatzen dituzten ala ez kontuan hartu gabe.
Baina ez dute harekin bat egiten; izan ere, aldarrikapen horietako askorekin bat datozen arren, haien ustez harrigarria da urtarrilaren 30erako grebara deitzea, Espainiako gobernu berriaren asmoei itxaron ere egin gabe. Izan ere, ez dute zalantzarik Espainiako egungo gobernuak aldarrikapen horietako asko gauzatuko dituela.

Alkate jaunak azaldu du EAJ-PNV udal-taldea ez dagoela ados EH Bilduk aurkeztutako mozio osoarekin, nahiz eta alderdi batzuekin ados dauden. Ondoren, esan du udal-mailan lan-hobekuntzak egiten jarraituko dutela, langileen subrogazioa jasotzen duten pleguetan egin diren bezala, kiroldegikoan, adibidez.

para mejorar las condiciones de vida de la ciudadanía vasca, favoreciendo la cohesión social y territorial en Euskadi. Los presupuestos para 2020 en Euskadi van a suponer la culminación de los planes del Gobierno Vasco para que las condiciones de vida de la ciudadanía vasca sean dignas y justas, mejorándose para ello el derecho a la RGI tanto en cuantía como en la ampliación de los colectivos incluidos en la prestación.

Y por último dice que quiere recalcar que respetan el derecho a la huelga, y por lo tanto, respetan que cualquier ciudadano o ciudadana pueda ejercer ese derecho con independencia de que compartan o no compartan las reivindicaciones que se van a realizar en ella.
Pero no se adhieren a ella porque, aunque pueden compartir muchas de esas reivindicaciones, a su juicio les resulta sorprendente que se convocara una huelga para el 30 de Enero, sin ni siquiera esperar a los planes del nuevo gobierno de España. De hecho, no tienen la menor duda de que gran parte de estas reivindicaciones se lleven a cabo por el actual gobierno de España.

El Sr. Alcalde expone que el grupo municipal EAJ-PNV no está de acuerdo con el conjunto de la moción presentada por EH Bildu, aunque si puedan compartir algunos aspectos de la misma. Sigue diciendo que a nivel municipal, seguirán haciendo mejoras laborales como las que se han ido realizando en distintos pliegos que recogen la subrogación del personal, como ocurrió con

Greba-eskubidea errespetatzen dutela ere esan du, eta, horren ondorioz, udaleko langileen gehiengoak hartutako erabakiaren ondoren, instalazioa itxita egongo dela datorren ostegunean, administrazioan gutxieneko zerbitzu izaera duen sarrera-erregistroa salbu.

Bestalde, adierazi du bere ustez ez dela oso logikoa greba deitzea Estatuko gobernu berriari aukerarik txikiena ere eman gabe, eta uste du aldarrikatzea guztiz zilegi dela, baina, era berean, aztertu egin behar dela eta noiz eta nori aldarrikatu jakin behar dela. Egia da lan-arazoak eta egin beharreko aldarrikapenak badaudela, baina ez dute uste bidea greba denik.

Zinegotzien txanda amaituta, eta gaia botoetara eramanda, aurkako botoa eman dute alkate jaunak eta Agirre (EAJ), Fidalgo (EAJ), Albisua (EAJ), Pérez (EAJ)  Agirre (EAJ), Nieves (PSE-EE) eta García (PSE-EE) zinegotziek {8 boto aurka}, eta aldeko botoa Etxaniz (EH Bildu), Oruesagasti (EH Bildu), Nestar (EH Bildu) y Elgarresta (EH Bildu) zinegotziek {4 boto aldeko}; horrenbestez, ez da onartu EH Bildu taldeak aurkeztutako mozioa.

Jarraian, EAJ-PNV taldeak aurkeztutako mozioa irakurri du alkate jaunak, hitzez hitz ondoren idazten dena:

el del polideportivo. También dice que respetan el derecho a la huelga, y en consecuencia, tras la decisión adoptada por la mayoría del personal municipal, la instalación permanecerá cerrada el próximo jueves a salvo del registro de entrada que tiene carácter de servicio mínimo en la administración.

Por otra parte indica que, a su juicio, no es muy lógico convocar una huelga sin dar la mínima oportunidad al nuevo gobierno del Estado, y entiende que reivindicar es totalmente lícito, pero también hay que analizar y saber cuándo y a quién. Que hay problemas laborales y reivindicaciones que realizar, sí, pero no creen que el camino sea la huelga.

Finalizadas las intervenciones, y sometido el asunto a votación, con los votos en contra del Sr. Alcalde y de l@s concejales Sr@s. Agirre (EAJ), Fidalgo (EAJ), Albisua (EAJ), Pérez (EAJ)  Agirre (EAJ), Nieves (PSE-EE) y García (PSE-EE) {8 votos en contra}, y los votos a favor de los ediles Sr@s. Etxaniz (EH Bildu), Oruesagasti (EH Bildu), Nestar (EH Bildu) y Elgarresta (EH Bildu) {4 votos a favor}, se desestima la moción presenta por EH Bildu.

Seguidamente el Sr. Alcalde procede a dar lectura a la **moción presentada por EAJ-PNV,** cuyo texto se transcribe a continuación:

*PENTSIOEN SISTEMA PUBLIKOAREN DEFENTSAN*

*Azken urte hauetan, pentsio sistema publikoaren orainak eta, batez ere, etorkizunak eztabaida sortu dute hiritarren arteko eta politikoen artean; izan ere, pentsio sistema publikoak kezka eta interes handia sortzen ditu hiritarren artean. Egoera hau areagotu da azken urteetan Estatuko Gobernuak eginiko aldaketak direla-eta, aldaketa horiek pentsiodunei eskuratze-ahalmena murriztu ez ezik, ahalik eta akordio gradurik handiena eskatzen duen kontsentsua puskatu egin baitute.*

*Azken garai honetan, pentsiodunen eta PP-ren gobernuak azken urteetan garatutako politikaren kontra dauden indar politikoen aldarrikapenek bultzatuta, pentsio sistema publikoaren inguruko eztabaida areagotu egin da. Horren azken adibidea Eusko legebiltzarraren azken adierazpena dugu. Ildo horretan, gure ustez guztiz presazkoa da pentsio sistema publikoa sekulan eten behar izan ez zuen adostasun markora bideratzea eta, hartara, azken urteotan pentsio sistema publikoa andeatu duten neurriak bertan behera utziz, delako sistema lehengoratu behar da.*

*Guzti horregatik*

*Urretxuko Udalbatzak, belaunaldien arteko elkartasun-berme eta bizi baldintza duinak dituen gizarte baten zutoin izango den pentsioen sistema publikoaren defentsan, Estatuko Gobernuari eskatzen dio:*

1. *Pentsio sistema publiko nahikoa eta iraunkorra bermatu dezala, oinarritutako dena pentsio duin batzuetarako eskubidean, elkartasunaren eta gardentasunaren esparruan, finantziazio-iturri ziurrek eutsitakoa, modu horretan pentsio duin eta aurresangariak bermatzeko.*
2. *Indargabetu dezala 23/2013 Legea, abenduaren 23koa, Gizarte Segurantzaren Pentsio Sistemaren Jasangarritasun Faktorea eta Errebalorizazio Indizea arautzen dituena. Helburua da pentsio duinak bermatzea, KPIari lotzea berrezarriz, horiek eguneratzeko formula gisa.*
3. *Legez debekatzea Pentsioentzako Erreserba Funtsaren xedapen librea kotizazioen defizit-egoeretarako, PPren gobernuak ezabatutako %3ko muga berreskuratuz. Helburua da pentsioen sistema publikoaren iraunkortasuneko berme finantzariorako tresna gisa erabiltzen jarraitu ahal izatea.*
4. *Finantziazio-neurriak hartzea, bideratutakoak sistemaren diru-sarrerak areagotzera, arauz kontrako kontratazioaren eta kontratazioko iruzurraren aurkako borrokara, hala nola Estatuko Aurrekontu orokorretatik etorritako diru-sarreren bidez kotizazioen finantzazioaren aldian aldiko defizitak betez.*
5. *Gizarte Segurantzako Sistemaren gastuetan jardutea, kenduz enpresek gizarte Segurantzan duten kotizazioko salbuespenak, hala nola erakunde administratiboen kudeaketa-gastuak. Horretarako, Estatuko Aurrekontu orokorren bidez zuzenean finantzatu ditzala Gizarte Segurantzaren administrazio-gastuak.*
6. *2012ko lan erreforma indargabetu dezala. Helburua da enpleguaren kalitatean eta kotizazioen gutxitzean dituen ondorio negargarriak, arriskuak jartzen baitute pentsioen sistema publikoaren iraunkortasuna. 5/2013 EDLko borondatezko erretiroaren erregulazioa indargabetzea.*
7. *EAEko pertsona pentsiodunen egoera hobetzeko ezinbesteko baldintza denez, ekimenak abiatu ditzala EAEra berehala eskualdatzeko Gizarte Segurantzaren alorreko eskumenak, bat etorriz Gernikako Autonomia estatutua onartzen duen 3/1979 Lege Organikoko 18.2 artikuluan eta Bosgarren Xedapen iragankorrean jasotakoarekin, bere izaera bateratuaren eta elkartasun printzipioaren errespetuaren baitan.*

Hitz egiteko txandekin hasita, Etxaniz jaunak, EH Bilduko bozeramaileak, azaldu du mozioan ez dela greba aipatu ere egiten; hala ere, bere taldearen iritziz, nahikoa arrazoi daude grebara deitzeko. Adierazi dute

Iniciado el turno de intervenciones, el Sr. Etxaniz, portavoz de EH Bildu, expone que en la moción ni siquiera se menciona la huelga, y a juicio de su grupo existen razones suficientes para convocar la misma.

mozioan pentsioak aipatzen direla, eta, grebaren aldarrikapenetako bat horixe dela gogora ekarriz, berretsi egin du bere talde politikoak grebari emandako babesa.

Alkate jaunak erantzun dio ez dutela greba aipatu aurretik azaldutakoagatik, hau da, uste dute gai askori ekin behar zaiela eta aurre egin behar zaiela guztion artean, eta udal-eskumena lortu duten gaietan hala egin dutela, administrazio-pleguen kasuan, adibidez.

Esan du zerbait lortuko dela, eta greba kontzeptualki ez dela ez negatiboa eta ez txarra, baina EAJ-PNV alderdiak beste bide batetik jarraitzea erabaki duela; hala ere, adierazi du kontuan hartu behar dela eta ez dela ahaztu behar talde nazionalistak ere lan-baldintza duinak nahi dituela, eta horren adierazgarri direla administrazio-pleguetan sartutako klausulak.

Zinegotzien txanda amaituta, eta gaia botoetara eramanda, aldeko botoa eman dute alkate jaunak eta Agirre (EAJ), Fidalgo (EAJ), Albisua (EAJ), Pérez (EAJ) Agirre (EAJ), Nieves (PSE-EE) eta García (PSE-EE) zinegotziek {8 boto aldeko}, eta aurkako botoa Etxaniz (EH Bildu), Oruesagasti (EH Bildu), Nestar (EH Bildu) y Elgarresta (EH Bildu) zinegotziek {4 boto aurka}; horrenbestez, honako hau erabaki da:

**Bakarra.-** EAJ-PNV taldeak aurkeztu duen mozioa onartzea, erabaki honen azalpen-zatian hitzez hitz jaso den testua.

Observan que en la moción se hace referencia a las pensiones y, recordando que este es precisamente uno de los puntos reivindicativos de la huelga, reitera el apoyo de su grupo político a la misma.

El Sr. Alcalde responde diciendo que no mencionan la huelga por lo ya expuesto anteriormente, esto es entienden que hay que acometer y hacer frente, entre todos y todas, a muchos asuntos, y creen que en las materias donde ha alcanzado la competencia municipal así lo han hecho, como en el ya mencionado caso de los pliegos administrativos. Dice que algo se conseguirá y que la huelga conceptualmente no es algo negativo ni malo, pero EAJ-PNV ha optado por seguir por un camino distinto teniendo en cuenta y sin olvidar que el grupo nacionalista también desea condiciones de trabajo dignas, siendo prueba de ello las clausulas introducidas en los pliegos administrativos.

Finalizadas las intervenciones, y sometido el asunto a votación, con los votos a favor del Sr. Alcalde y de l@s concejales Sr@s. Agirre (EAJ), Fidalgo (EAJ), Albisua (EAJ), Pérez (EAJ) Agirre (EAJ), Nieves (PSE-EE) y García (PSE-EE) {8 votos a favor}, y los votos en contra de los ediles Sr@s. Etxaniz (EH Bildu), Oruesagasti (EH Bildu), Nestar (EH Bildu) y Elgarresta (EH Bildu) {4 votos en contra}, se acuerda:

**Único.-** Aprobar la moción presentada por EAJ-PNV cuyo texto se ha transcrito en el exponendo de este acuerdo.

Eta beste gairik izan gabe, amaiera eman zaio batzarrari, akta honen hasieran zehazten den arratsaldeko zazpirak eta berrogeita zazpi direnean, eta nik, Idazkariak, guzti horren fede ematen dut.

Y no habiendo más asuntos que tratar, se da por finalizada la presente sesión, siendo las diecinueve horas y cuarenta y siete minutos del día que encabeza la presente acta, de todo lo cual doy fe.